



Intxaurren

ru gehienek Euskal Herriarekin nolabaiteko harrereana dute eta 1500 eta 1900. urte bitartekoak dira”.

Orbanak, zuloak...

Garazik nolako liburuak ekarzen dizkioten azaldu digu: “Liburu batzuek zenbait orri askatuta izaten dituzte. Bestalde, bustitako liburuak – uholdeetan bustitakoek, adibidez– orban arrosak eta grisak izaten dituzte, ondoen eta antzeko mikroorganismoen eraginez. Azkenik, tintak eta paperaren beraren azidoek orriak horitu eta zulatu ohi dituzte”. Zenbait liburu orrizorri desmuntatu behar izaten ditu. “Oso lan zehatza egin behar izaten dut. Normalean papera bainatu egiten dut. Izan ere, papera sendotu egiten baita uretan egon eta gero. Bestalde, intsektuek paperaren eragindako zuloak betetzeko, zelulosa-orea erabali ohi dut eta ondoek sorturiko orbanak kentzeko, desinfektagarriak”. emakume batek.



Garazi Valverde, paper zaintzaile

Garazi Valverde auzotarra paper zaharbertzaile da. Irurak plazako tailerrean, urak, ondoek edo besterik gabe denboraren joan-etorriak hondatutako liburuak, grabatuak eta akuarelak berritzen ditu.

Raul Perez

Garazi Valverde arte-ederrak ikasitakoa da eta ikasketa garaian, zaharbertzaile landu zuen sakonen. Ikasketen azken txanpan, Atenasen hiru hilabete pasatu zituen. “Bilbon ikasi ez nuena jorratu nahi nuen; papera zaharbertzaile, alegia”, azaldu digu Garazik. Ondoren, Florentzian izan zen, beste bi urtetan, Atenasen bezala, papera zaharbertzen ikasten. Duela bost urte Irurak plazan lokala zabaldu

zuen eta bertan dihardu gaur egun. Zer zaharbertzen du Garazik? Denetik: liburuak, grabatuak, paper gainean egindako obra grafikoa, akuarelak... Garazik enkarguzko lanak egiten ditu, norbanakoenak eta erakundeenak. Orain Gasteizen dabil, Antso Jakituna Fundazioaren liburu zaharrrak zer moduz dauden aztertzen: “Txosten moduko bat egin eta liburu bakoitzaren egoera zehazten ari naiz. Hau da, zeinek behar duen zaharbertzaile eta zeinek ez. Liburuak

“Leku hezeak, temperatura aldaketek eta eguzkiak liburuak kaltetzen dituzte”

ra, adibidez, ez da lekurik onena liburuak gordetzeko. Azkenik, eguzkiak min handia egiten die liburuei, orriak lehortu eta kolore gabe uzten dituelako”. Aintzat hartzeko beste gomendio bat ere eman du: “Zelofana ez da erabili behar, arrastoa uzten duelako eta gainera, kendu behar denean, papera hondatzen delako. Almidoizko kola askoz egozgarria da, esaterako”.

Liburuak zaintzeko aholkuak

Garazik etxean ditugun liburuak behar bezala kontserbatzeko zenbait aholku eman dizkigu: “Leku hezeak, ahal den heinean, saihesti egin behar dira. Horrekin batera, temperatura aldaketek ez die liburuei batere mesederik egiten. Hortaz, etxeko ganba-

Mahala
Eskualdeko Etxerri Naturalak

Gazta, ordira eta freskoa
Yogurtak
naturrek gogotzen dituzten
iruhakak

Mahala baserria • 20491 LEABURU •
Tel.-Faxa: 943 673499 • Tel. - Mug.: 689 805633

NARRIKA
taberna

Narrika 16
Tel.: 943 427327

taberna jatetxea
TXISKUENE

• Egunko menuak
• Afariak
• Ospakizunak

Begiristain pasealekua 85
(Hospitaletako bidea) • Tel.: 943 450987